

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1810

IRAGARKIA, 2022ko apirilaren 13koa, Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezkararena. Honen bidez, jendaurrean jartzen da, izan litekeen lehiaren ondorioetarako, instalazio honetarako administrazio-baimena: Arrasate udalerrian (Gipuzkoa), Udala Behekoako auzoan petrolioaren gas likidotuak (PGL) biltegi finkoan eta gas propano kanalizatua banatzeko sarea.

Gas erregaiak kanalizazio bidez banatzeko eta garraiatzeko instalazioei dagozkien administrazio-baimenen prozedurei buruzko ekainaren 9ko 76/2020 Dekretuan, Hidrokarburoen Sektorari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legean eta petrolioaren gas likidotuak banatzeko jardueraren Erregelamendua onartzen duen irailaren 11ko 1085/1992 Errege Dekretuan aurreikusitako ondorioetarako, jendaurrean jartzen da, eskabide hau jendaurrean erakusten da, izan litekeen lehiaren ondorioetarako:

- Eskatzailea: NED Suministro GLP SAU, helbidea: Concha jeneralaren kalea 20, 48010 Bilbao.
- Eskabidearen xedea: Udala Behekoako (Gipuzkoa) auzoa gasifikatzeko beharrezkoak diren gas propanoko azpiegiturak (PGL) eraikitzeko alde aurreko administrazio-baimena.
- Erreferentzia: 20-CGY-2022-00001.
- Udala Behekoako auzoan petrolioaren gas likidotua biltegi finkoan eta gas propano kanalizatua banatzeko sarea.
- Eremu geografikoa: Arrasateko udal-mugartea (Gipuzkoa).
- Prozeduraren hasiera-data: 2022-03-25.
- Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea: 76/2020 Dekretuak 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Administrazioaren isiltasunak dituen ondorioak: ezezpeneak.

Hori guztia argitara ematen da lehiatzeko eskabideak aurkez ahal daitezzen, hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan izapidetze elektronikoen plataformaren bidez, CG-Y prozeduraren bidez, hemen: <https://www.euskadi.eus/prozedura/cg/web01-a2energi/eu/>

Lehia-prozeduran aurkezteko eskaerarekin batera, 76/2020 Dekretuaren 8. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da gutxienez, eta dekretu horren 6. eta 7. artikuluetan ezarritakoa bete beharko da.

Donostia, 2022ko apirilaren 13a.

Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezkarria,
AGUSTIN AROSTEGI ARTETXE.